Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	434	416	359	25	23	24
Kapital publikoko enpresak	66	10	-	-	-	-
Beste erakunde batzuk	19	4	16	1	-	1
GUZTIRA	796	672	489	82	64	63

Taula 39: Ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan. 2023

Informatzaileak	Kide anitzeko zuzendaritza-organoen kopurua	
	Guztira	Ordezkaritza orekatuarekin
Eusko Jaurlaritza	115	40
Emakunde	1	-
Foru Aldundiak	205	202
Udalak	27	18
Mankomunitate eta partzuergoak	13	11
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	22	11
Kapital publikoko enpresak	9	2
Beste erakunde batzuk	3	2
GUZTIRA	395	286

3.- ESKU-HARTZEAREN ARDATZETAKO JARRAIPENAREN EMAITZAK


3.1. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduerak

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduketaren kopurua %5,9 jaitsi da

Gutxira 701 jarduera egin direla jakinarazi da (2022an baino 44 gutxiago), hau da, aurreko ekitaldian baino %5,9 gutxiago¹⁶, hein batean, 2023an parte hartu duten erakundearen kopuruak behera egin duelako. Jarduera horien guztien %69,0 baino gehiago udalek (%37,3) eta Eusko Jaurlaritzako sailek (%31,7) bultzatu dituzte.

Jarduera horien erdiak baino gehixeagok, %53,5ek, jarraipena eman diete 2022an abian jarritako ekimenei. Eremu horretan, Eremu horretan, Emakunde nabarmentzen da, non informatutako jardueren %84,8k 2022an hasitako ekimenekin jarraitzen duten, baita beste erakunde batzuk ere (%66,7).

Grafiko 19: EAEn berdintasun alorrean garatutako jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. 2023



¹⁶ Emakunde sentsibilizazio-lana egiten ari da jarduera horiek taldekatu ahal izateko eta erakundeek jarduera garrantzitsuenen berri bakarrik emateko. Hala ere, jarduera-kopuruaren gorabehera horiek erakundeek beren jardueraren berri emateko eta izaera bereko esku-hartzeen irakurketa bateratua erraztuko duten esku-hartze garrantzitsuenak aukeratzeko (adibidez, sentsibilizazio-kanpainak) duten oreka zailari zor zaizkio.

Taula 40: Aurreko urtearen jarraipena diren jardueren ehunekoa, erakunde motaren arabera. 2023

Informatzaileak	Aurreko urtekoen jarraipena (2022)	
	Kopurua	Gutizkoen %
Eusko Jurlaritzako Sailak	138	36,8
Emakunde	39	10,4
Foru Aldundiak	47	12,5
Udalak	97	25,8
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	25	6,7
Erakunde Autonomoak /Erakunde Publikoak	17	4,5
Beste erakunde batzuk	12	3,2
GUZTIRA	375	100,0

3.2. Esku-hartzeen helburu politikoak

Berdintasunaren aldeko kultura eta emakumeak ahalduntzea eta sustatzea dira helburu nagusiak


EAEko VII. Berdintasunerako Planak 3 ardatz ezartzen ditu, eta, horretan oinarrituta, erakundeek jakinarazitako jarduerak bat datoz helburu nagusi hauekin¹⁷:

- Emakumeen ahalduntzea;
- Ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzea;
- Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak sustatzea.

Horrela, 2023an informatutako jarduketek helburuek ondorengo alderdiak hartu dute ardatz gisa:

- Nabarmen, **gizartean berdintasunaren aldeko kultura bultzatzea** (%28,9) eta **emakumeen ahalduntzea eta sustapena** (%24,5).
- **Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztera** (%212,6).
- Neurri txikiagoan, **gobernantza hobetzea** (%8,4) eta %4,8 **erantzunkidetasuna** bultzatzea (%4,8).

Grafiko 20: Helburu politiko jakin bat lortu nahi duten jarduketek kopurua. 2023



¹⁷ Adierazi behar da beti ez dela erraza jarduera bati helburu bakar bat esleitzea, eta, beraz, erakundeei eskatzen zaie ahal den neurrian jarduera horren helburu nagusia identifikatzeko.

Jarraian, modu laburrean, EAEko botere publikoek egindako jardueren helburuak aurkezten dira:

- **Eusko Jaurlaritzako sailak:** ohikoa denez, askotariko jarduerak dituzte, sail bakoitzaren eskumenak direla eta:
 - **Gizartean aldeko kultura bultzatzea:** arreta, orientazio eta aholkularitzako zerbitzuak, diru-laguntzak, sentsibilizazioa, kongresuak, prestakuntzak, tailerrak, laguntza-programak, etab.
 - **Gobernantza hobetzea:** mintegiak antolatzea, ikastaroak, prestakuntzak, beken deialdia, genero-ikuspegia txertatzeko batzordeen jarraipena, etab.
 - **Ahalduntzea:** emakumeen ekintzailatza, talentua, azterlanak egitea, lan-ikuskapenak bultzatzeko diru-laguntzak (sexuagatiko diskriminazioa, haurdun dauden langileen berdintasunerako, segurtasunerako eta osasunerako planen neurriak ezartzeko kontrola, sexu-jazarpena eta protokoloak, etab.), kirolean emakumeen presentzia sustatzea, etab.
 - **Indarkeria desagerraraztea:** zerbitzu espezifikoak bermatzea (GAKOA programa, ZEUK ESAN, SATEVI), doako laguntza juridikoa, jardunaldiak, etxebizitzak zuzenean esleitzea, prestakuntzak antolatzea, etab.
 - **Erantzunkidetasuna:** Haurreskolak finantzatzea, 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatatzeko laguntzak, diru-laguntzak (Kontzilia gunea, Zainlab hiru foru-aldundiei, hirugarren sektoreko jarduerak), kontziliazioaren arloko diagnostikoak eta planak egiteko laguntzak ematea, etab.
- **Emakunde:** hainbat jarduera-mota, programak garatuz (Gizonduz, Beldur Barik, Jabetuz) diru-laguntzak, bekak, lankidetzak-hitzarmenak, prestakuntzak eta jardunaldiak antolatzea, etab.
- **Foru Aldundiak:** diru-laguntza ugari eskaintzen dituzte udalerrientzat, berdintasuna sustatzeko elkarreentzat, sarientzat, biltzarren antolaketarentzat, lankidetzak-hitzarmenentzat, kanpainenentzat (M8 eta A25), prestakuntzentzat eta abarrentzat.
- **Udalak/mankomunitateak/kuadrilak:** ahalduntze-eskolak, Basqueskola, berdintasunaren arloko gaiei buruzko ikastaroak/tailerrak, irakurketa feministen kluba, data garrantzitsuetarako (M8, M17, A25, etab.) kanpaina eta jarduera espezifikoak, etab.
- **Erakunde autonomoak eta erakunde publikoak:** beren jarduera-eremuetatik hainbat jarduera bultzatzen dituzte, hala nola totem moreak instalatzea, euskaltegien eremuan berdintasuna txertatzea, ikastaroak, kanpainak, berdintasuna osasunean txertatzeko jarduerak, genero-ikuspegia Laneko Arriskuen Prebentzioan txertatzeko jarduerak, etab.
- **Kapital publikoko enpresak:** azterlan espezifikoak egitea, bizigarritasunari buruzko dekretua genero-ikuspegitik aztertzea.
- **Beste erakunde batzuk:** emakume kirolariak ikusarazteko dokumentalak, lidergoari buruzko programak, sariak, egun seinalatuetoako emanaldiak, kongresuak, etab.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Taula 41: Helburu politiko zehatz bat duen ekintza kopurua, erakunde motaren arabera. 2023

Informatzaileak	Eusko Jaurlaritza	Emakunde	Foru Aldundiak	Udalak	Mankomun. eta partzuer.	Erakunde autonomo eta publikoak	Kapital publikoko enpresak	Beste erakunde batzuk	Guztira
Indarkeria desagerraraztea	32	10	15	73	9	4	-	5	148
Erantzunkidetasuna	15	2	4	10	1	1	-	-	33
Emakumeak ahalduntzea/sustatzea	35	5	25	81	15	4	-	3	168
Aldeko kultura sustatzea gizartean	58	22	16	79	5	8	2	8	198
Ez da bat ere egokitzen	38	4	6	13	9	8	-	2	80
Gobernantza hobetzea	41	2	9	1	3	2	-	-	58
GUZTIRA	219	45	75	257	42	27	2	18	685

3.3. Berdintasun-ekintzen gaiak


Jardueren ia erdia (%47,1) Hezkuntza eta Kultura, Euskara eta Kirolei buruzkoak izan dira

Gehien errepikatzen diren gaiak aurreko urteko berak dira: Hezkuntza (guztizkoaren %23,5) eta Kultura, Euskara eta Kirolak (guztizkoaren %23,5). Gizarte Politika ere gai errepikakorra izan da erakundeen artean, jarduketan %20,9 horretan zentratu baitira.

Udalak eta Eusko Jaurlaritza dira jarduera gehien egin dituzten erakundeak. Bi erakunde horien gaiak aztertuz gero, honako hau ikusiko dugu:

- Udalen artean, jarduera ohikoenak Hezkuntza (%35,6), Kultura, Euskara eta Kirolak (%34,1) eta Gizarte Politika (%22,9) izan dira.
- Eusko Jaurlaritzari dagokionez, gehien eskainitako gaiak Osasuna eta Kontsumoa (%28,7) eta, neurri txikiagoan, Ekonomia (%16,6) eta Gizarte Politika (%14,9) izan dira.

Grafiko 21: Gai jakin bat garatzen duten jardueren kopurua. 2023



INFORMAZIO OSAGARRIA

Taula 42: Gai jakin bat garatzen duten jardueren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2023

Informatzaileak	Eusko Jaurlaritza	Emakunde	Foru Aldundiak	Udalak	Mankomunit. Partzuergoak	Erakunde Autonomoak eta Erakunde publikoak	Kapital publikoko enpresak	Beste erakunde batzuk	Guztira
Hezkuntza	15	1	9	73	10	-	-	17	125
Kultura, Euskara, Kirola	22	7	11	70	7	7	-	1	125
Enplegua	15	3	1	4	-	3	-	-	26
Ekonomia	30	7	4	1	1	3	-	-	46
Osasuna eta kontsumoa	52	-	1	5	-	8	-	-	66
Habitata	8	-	-	2	-	-	1	-	11
Gizarte politika	27	9	9	47	17	2	-	-	111
Lankidetzatza	-	-	-	1	-	-	-	-	1
Segurtasuna eta Justizia	12	4	1	2	1	-	-	-	20
GUZTIRA	181	31	36	205	36	23	1	18	531

3.4. Esku-hartze mota

Berdintasunaren arloko
sentsibilizazio-,
hedapen-beta
komunikazio-jarduerak
dira nagusi oraindik ere

Botere publikoek berdintasunaren arloan egiten dituzten ekintzen sailkapena 9 tipologiatan¹⁸ bereizten da, eta horien analisia eta bilakaera ahalbidetzen dute. Azken urteetan ohikoa izan den moduan, **sentsibilizazioari, hedapenari eta komunikazioari** buruzko jarduerak izan dira ohikoenak (%24,0). Jarduera horien ia erdiak udalek (%48,3) eta Eusko Jaurlaritzako sailek (%23,0) bultzatu dituzte. Izan ere, erakunde horiek jarduera kopuru handiago baten berri eman dute.

Informatutako gainerako jardueren tipologiari dagokionez, honako hauek aipatu behar dira:

- **Jarduera ekonomikoek** guztizkoaren %17,0 hartzen dute. Gehienak udalek bultzatu dituzte (%44,5), ondoren Eusko Jaurlaritzak (%21,5) eta foru-aldundiek (%17,6).
- Jardueren %12,5 **herritarrei zuzendutako prestakuntzak** bultzatzera bideratu dira, eta prestakuntza horiek proportzio handiagoan garatu dituzte udalek (%68,9).
- **Informazio-, ezagutza- eta azterketa-ekintzek** guztizkoaren %12,0 hartzen dute, eta Eusko Jaurlaritzak (%35,4) eta udalek (%30,4) bultzatutakoak nabarmentzen dira.
- Ohikoenak ez diren jarduerak, **unitateen, erakundeen eta organismo publikoen arteko koordinazioa** (%9,3), **esku-hartze erregulatzaileak** (%8,4), **herritarren parte-hartzea eta kontsulta** (%6,6), **zerbitzuen eta/edo ekipamenduen sorrera eta kudeaketa** (%6,0) eta, azkenik, **profesionalentzako prestakuntza** (%4,2).

¹⁸ Esku-hartze erregulatzaileak; Ekonomikoak; Herritarrei zuzendutako prestakuntza-ekintzak; Zerbitzu publikoetako profesionalei zuzendutako prestakuntza-ekintzak; Informazio-, ezagutza- eta analisi-ekintzak; Zerbitzuak, baliabideak eta/edo ekipamenduak sortzea eta kudeatzea; Herritarrek parte hartzeko eta kontsultatzeko esku-hartzeak; Unitateen, erakundeen eta erakunde publiko eta pribatuen arteko koordinazio- eta ituntze-esku-hartzeak.

Grafiko 22: Jarduketa-kopurua esku-hartze motaren arabera. 2023



INFORMAZIO OSAGARRIA

Taula 43: Esku-hartze mota gisa formulatzen diren jarduketaren kopurua, erakunde motaren arabera.
2023


Informatzaileak	Eusko Jauriaritza	Emakunde	Foru Aldundiak	Udalak	Mankomun. eta partzuer.	Erakunde autonomo eta publikoak	Kapital publikoko enpresak	Beste erakunde batzuk	Guztira
Esku-hartze ekonomikoa	49	17	40	101	13	7	-	-	227
Esku-hartze arautzailea	24	6	5	67	9	1	1	-	113
Herritarren prestakuntza	16	6	8	115	19	3	-	-	167
Zerbitzu publikoetako langileentzako prestakuntza	28	1	5	12	7	3	-	-	56
Sentsibilizazioa, hedapena eta komunikazioa	74	13	33	155	24	19	2	1	321
Informazioa, ezagutza eta analisisia	57	13	12	49	22	7	-	1	161
Zerbitzu edota ekipamenduen sorrera eta kudeaketa	30	3	3	42	3	-	-	-	81
Herritarren partaidetza eta kontsulta	10	6	3	60	9	-	-	-	88
Unitateen, instituzioen eta erakunde publiko eta pribatuaren arteko koordinazioa eta hitzarmenak lotzeko esku-hartzea	28	11	11	63	11	1	-	-	125

Formakuntza

Herritarrei zuzendutako prestakuntzetan parte-hartzeak gora egin du: 59.000 parte hartzaile baino gehiago izan dira


Guztira, 59.813 pertsonen¹⁹ hartu dute parte **herritarrei zuzendutako prestakuntzan**, hau da, aurreko urtean baino %31,1 gehiagok. Ohikoa den bezala, emakumeen parte-hartzea nabarmen handiagoa da (%76,5). 2023an, foru-aldundiek (%54,4) jarduera horietan parte hartu zuten pertsonen erdiak baino gehiago bildu zituzten.

Grafiko 23: EAEn berdintasunean trebatutako pertsonak (herritarrak), erakundearen arabera. 2023



Prestakuntza horien helburu nagusia (%82,1) herritarrek berdintasunaren arloan duten ezagutza hobetzea izan da. Neurri txikiagoan, lanbide-jardueran aplikatzen laguntzea (%12,1) eta enplegarritasuna edo garapen profesionala bultzatzea (%5,7). Prestakuntza horietako 4k bakarrik eman dute ziurtagiri bat edo prestakuntza egin izana egiaztatu dute.

Grafiko 24: Herritarrak tratzeko ekintzen kopurua, helburuaren arabera. 2023




¹⁹ Zehazki, sexuaren arabera 52.482 pertsonen parte-hartzea zehaztu da (40.161 emakumeak eta 12.321 gizonak).

Zerbitzu publikoetako profesionalentzako berdintasunerako prestakuntza-jardueretan %57,7 murriztu da partaidetza


2023an murriztu egin da zerbitzu publikoetako profesionalentzako (irakasleak, osasun-langileak...) berdintasunari buruzko prestakuntza-ekintzetako parte-hartzaileen kopurua. Guztira 5.351 parte-hartzaile izan dira (2022an 12.655 pertsona). Horrelako jardueretan ere emakumeen parte-hartzea ohikoagoa izaten da, %77,1 eta gizonen %22²⁰. Partaidetzaren %70,8 Eusko Jaurlaritzak sustatu du.

Grafiko 25: EAEn berdintasunean trebatutako langile publikoak, erakundearen arabera. 2023



Jardueren erdiak jarduera profesionalean aplikatzen laguntzeko izan dira eta %46,8 berdintasunari buruzko ezagutza hobetzeko. Azkenik, %3,2 soilik izan dira enplegarritasuna edo garapen profesionala bultzatzeko. Prestakuntza horien %19,3k ziurtagiriak edo egiaztagirak ematen ditu parte hartu ondoren.

Grafiko 26: Zerbitzu publikoentzako prestakuntza jarduketaren kopurua, helburuaren arabera. 2023



²⁰ Informatutako emakumeen eta gizonen batura osoaren arabera kalkulaturako ehunekoak (3.907); gainerakoek ez dituzte datuak banakatu.

Adierazi den bezala, emakumeek berdintasunaren arloko prestakuntzetan duten parte-hartzea askoz ere handiagoa da, bai herritarrei zuzendutakoetan, bai profesionali zuzendutakoetan ere.

Grafiko 27: Herritarrentzako prestakuntza eta administrazioetako langile publikoentzako prestakuntza parte hartu dutenen kopurua, sexuaren arabera. 2023



INFORMAZIO OSAGARRIA

Taula 44: Herritarrentzako prestakuntza-jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua, erakunde motaren eta sexuaren arabera. 2023

Informatzaileak	Emakume partaideak	Gizon partaideak	Partaideak guztira ²¹
Eusko Jaurlaritza	230	55	6.587
Emakunde	2.529	2.588	5.117
Foru Aldundia	27.090	4.419	32.538
Udalak	8.502	4.514	13.016
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	1.797	738	2.535
Erakunde autonomo eta publikoak	13	7	20
GUZTIRA	40.161	12.321	59.813

Taula 45: Prestakuntza-helburu zehatzak (herritarren prestakuntza) lortzeko antolatu den jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2023

Informatzaileak	Berdintasunari buruzko ezagutza hobetzea	Lanbidearen jardueran aplikatzen laguntzea	Enplegagarritasuna hobetzea	Ziurtagiria/akreditazioa barne
Eusko Jaurlaritza	7	5	1	-
Emakunde	5	3	-	2
Foru Aldundiak	2	1	1	-
Udalak	86	6	3	2
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	14	1	2	-
Erakunde autonomo eta publikoak	1	1	1	-
GUZTIRA	115	17	8	4

Taula 46: Administrazioen zerbitzu publikoetako prestakuntza-jardueretako parte-hartzaileen kopurua, erakunde motaren eta sexuaren arabera. 2023

Informatzaileak	Emakume partaideak	Gizon partaideak	Partaideak guztira ²²
Eusko Jaurlaritza	1.754	591	3.789
Emakunde	394	42	436
Foru Aldundiak	39	11	50
Udalak	381	156	537
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	77	3	80
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	367	92	459
GUZTIRA	3.012	895	5.351

²¹ Hainbat erakundek guztizkoak baino ez dituzte adierazi, horregatik, guztizko kopurua handiagoa da.

²² Hainbat erakundek guztizkoak baino ez dituzte adierazi, horregatik, guztizko kopurua handiagoa da.

Taula 47: Zerbitzu publikoei prestakuntza-helburuen inguruan eskaini zaien prestakuntza-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2023


Informatzaileak	Berdintasunari buruzko ezagutza hobetzea	Lanbidearen jardueran aplikatzen laguntzea	Enplegarritasuna hobetzea	Ziurtagiria/akreditazioa barne
Eusko Jurlaritzak	10	18	1	9
Emakunde	-	-	-	1
Foru Aldundiak	3	3	1	-
Udalak	10	6	-	-
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	5	1	-	-
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	1	3	-	2
GUZTIRA	29	31	2	12

Sentsibilizazioa

Aurreko urtearekin alderatuta, %27,3 murriztu da sentsibilizazio-, hedapen- eta komunikazio-jardueretako partaidetza


2023an, murriztu egin da parte-hartze kopurua: 16.338 pertsonak hartu zuten parte sentsibilizazio-ekintza horietan, (2022an 22.521 izan ziren). Sentsibilizazio-jarduera horietan emakumeen parte-hartzea handiagoa izan da (%72,6²³). Aurreko urteetan bezala, partaidetza horren zati handi bat sustatzen duten erakundeak udalak (%36,3) eta Eusko Jaurlaritza (%35,1) izan dira.

Grafiko 28: Berdintasun-alorreko sentsibilizazio-ekintzetako partaideak, erakunde sustatzailearen arabera. 2023



Guztira, 464 jarduera-mota garatu dira, erakundeek herritarrak sentsibilizatzeko erabiltzen dituztenak. Gehienak hedabideetako zabalkunde-kanpainak (%29,9), materialen sorkuntza eta banaketa (%27,8) eta jardunaldi, erakusketa eta solasaldien antolaketa (%24,8) izan dira.

Grafiko 29: Sentsibilizazio-ekintza kopurua, ekintza motaren arabera. 2023



²³ Erakunde parte-hartzaile guztiek ez dute sexuaren arabera banakatzen partaidetza. Ehunekoa kalkulatzeko, datu hauen berri eman dituztenak hartu dira kontuan.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Taula 48: Sentsibilizazio-, hedapen- eta komunikazio-jardueretan parte hartu dutenen kopurua, erakunde motaren eta sexuaren arabera. 2023

Informatzaileak	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA ²⁴
Eusko Jurlaritzak	823	332	5.747
Emakunde	387	23	410
Foru Aldundiak	236	7	353
Udalak	4.047	1.300	5.947
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	545	156	631
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	2.048	1.232	3.280
GUZTIRA	8.086	3.050	16.368

Taula 49: Sentsibilizazio-jardueren kopurua, tipologiaren eta erakunde-motaren arabera. 2023

Informatzaileak	Jardunaldiak, erakusketak, mahai-inguruak...	Materialak sortu eta zabaltzea	Hedatze-kanpaina hedabideetan	Komunikazio instituzionala/korporatiboa	Guztira erakundeko
Eusko Jurlaritzak	23	17	11	20	71
Emakunde	5	5	4	8	22
Foru Aldundiak	20	10	13	5	48
Udalak	50	85	95	36	266
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	12	5	10	3	30
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	4	6	4	8	22
Kapital publikoko enpresak	-	-	1	1	2
Beste erakunde batzuk	1	1	1	-	3
GUZTIRA	115	129	139	81	464

²⁴ Erakunde batzuek guztizkoak bakarrik adierazi dituzte, horregatik kopurua handiagoa da.


Informazioa, ezagutza eta analisia

2023an, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei buruzko 161 informazio-, ezagutza- eta azterketa-jarduera egin dira

Hainbeste aldaketa jasaten dituen gizarte batek etengabe hartu behar du kontuan horrek dakartzan faktoreen bilakaera, eta, beraz, berdintasun-politiken diseinua aldaketa horiek kontuan hartuko dituen ezagutza eguneratuan oinarritu behar da. Helburu horrekin, EAEko botere publikoek 161 jarduera egin dituzte, aurreko ekitaldian baino %27,8 gehiago.

Esku-hartze horien %35,4 Eusko Jaurlaritzako sailek egin dituzte, eta %30,4 udalak. Neurri txikiagoan, %13,7k egin dituzte mankomunitateek eta koadrilek.

Grafiko 30: Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. 2023



Informazio-, ezagutza- eta azterketa-jarduerak askotarikoak dira. Jarduera horietako gehienak diagnostikoak edo azterlanak egiteko (%27,5), datuak biltzeko edo informazioa biltzeko sistema aldatzeko (%27,0) eta berdintasun-estrategiak eta -politikak hobetzeko proposamenak egiteko (%19,8) egin dira.

Grafiko 31: informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketaren kopurua, oinarritzko edukiaren arabera. 2023



INFORMAZIO OSAGARRIA

Taula 50: jarduera zehatz batzuei buruzko informazio-, ezagutza- eta azterketa-jarduketekopurua, erakunde-motaren arabera. 2023


Informatzaileak	Datuak biltzea eta informazioa biltzeko sistema aldatzea	Diagnostikoa edo azterketa	Proposamenen txostena prestatzea	Jarduteko barne jarraibideak berrikusi eta aldatzea	Ebaluazio txostena prestatzea	Guztira erakundeko
Eusko Jaurlaritza	6	20	5	5	13	49
Emakunde	4	3	6	-	5	18
Foru Aldundiak	6	4	7	4	3	24
Udalak	25	15	12	3	11	66
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	10	11	9	6	2	38
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	4	4	2	1	-	11
Beste erakunde batzuk	1	-	-	-	-	1
GUZTIRA	56	57	41	19	34	207

3.5. Zerbitzuak eta ekipamenduak sortzea eta kudeatzea

Baliabideak, zerbitzuak eta ekipamenduak sortzeko eta kudeatzeko jarduerak %30,6 handitu dira

EAEn berdintasuna sustatzeko zerbitzuak eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko 81 jarduketaren berri eman da, hau da, aurreko ekitaldian baino %30,6 gehiago (62). Zerbitzu eta ekipamendu horien erdia baino gehiago udalek bultzatu dituzte (%51,8) eta, neurri txikiagoan, Eusko Jaurlaritzako sailek (%37,0).

Grafiko 32: Zerbitzuak eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. 2023




Zerbitzu edo ekipamendu horien helburuak heterogeneoak dira. Aurten, helburu nagusia zaintzaren arloko informazioa, dokumentazioa eta aholkularitza ematea (%35,3) eta emakumeen ahalduntzea babestea (%31,3) izan da. Neurri txikiagoan, emakumeen eta haien seme-alaben aurkako indarkeriaren biktimentzako arreta (%20,2) eta zainketen gizarte-erantzunkidetasuneko zerbitzuak eta/edo ekipamenduak (%13,1).

2023an 29 baliabide, zerbitzu edo ekipamendu berri sortu direla jakinarazi da, gehienak udalenak (19, %65,5). Era berean, 40 jarduera lehendik dauden baliabideak kudeatzeko eta/edo aldatzeko izan dira (21 Eusko Jaurlaritzako sailetakoak eta beste 14 udaletakoak) ²⁵.

²⁵ Gainerako baliabide hauek dira: 9 Eusko Jaurlaritzarenak eta 1 Mankomunitate eta Kuadrillak.

Grafiko 33: Zerbitzu eta baliabideak sortu, , kudeatu eta aldatzeko jarduketaren kopurua. 2023



Aztertutako zerbitzu horietatik, 51k berdintasunaren arloan espezializatutako langileak dituzte, batez ere udalek (32tan) eta Eusko Jaurlaritzak (13tan) kudeatzen dituztenek. Era berean, 25ek zerbitzu horien diagnostiko bat egin dute emakumeen eta gizonen desberdintasunak eta premiak identifikatzeko.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Taula 51: Zerbitzuak eta ekipamenduak sortzeko eta kudeatzeko jarduketaren kopurua eta ezaugarriak, erakundearen arabera. 2023

Informatzaileak	Dagoen zerbitzua, baliabidea edo ekipamendua kudeatu edo aldatzea ...	Baliabide, zerbitzu edo ekipamendu berria sortzea	Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen eta beharren diagnostikoa egin da	Zerbitzuan berdintasun-alorreko langile espezializatuak daude	Guztira erakundeko
Eusko Jaurlaritza	21	9	4	13	47
Emakunde	2	-	-	1	3
Foru Aldundiak	3	-	2	3	8
Udalak	14	19	18	32	83
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	-	1	1	2	4
GUZTIRA	40	29	25	51	145

Taula 52: Zerbitzua, baliabidea edo ekipamendua, erakunde motaren arabera. 2023


Informatzaileak	Informazioa, aholkularitza...	Ahalduntzeari laguntza	Biztanleen erantzunkidetasuna	Arreta genero-indarkeria izan dutenei	Guztira erakundeko
Eusko Jaurlaritza	2	8	5	5	20
Emakunde	2	1	1	-	4
Foru Aldundiak	3	-	-	1	4
Udalak	25	21	7	13	66
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	3	1	-	1	5
GUZTIRA	35	31	13	20	99

3.6. Berdintasun-ekintzen erakunde eta pertsona onuradunekiko hurbilketa

Emakumeak eta gazteak izan dira botere publikoek bultzatutako jardueren hartzaile nagusiak

Euskal herri-agintek identifikatutako jarduera guztietatik, gehienak (%63,7) emakumeei zuzendu zaizkie, eta %19,8, berriz, gizonei (aurreko ekitaldiaren antzekoa). Beste identitate batzuetako pertsonen zuzendutako jarduerak zertxobait igo dira 2022rekin alderatuta (%13,0tik %16,5era).


Grafiko 34: Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, sexuaren arabera. 2023



Hainbat dira EAEko botere publikoek bultzatzen dituzten jardueren eremu hartzaileak. 2023an, hartzaile nagusiak eremu zibila (%24,3), administrazio publikoak (%23,5) eta eremu pertsonala edo familia-eremua (%20,7) izan dira. Jarduketan proportzio esanguratsu bat (%20,9) beste eremu batzuetara bideratu da.

Jarduera horiek zuzentzen zaizkien kolektibo-motei buruzko banakapen zehatzagoa eginez, ikus daiteke guztizkoaren %22,2 gazteak hartzen dituztela ardatz, eta, ondoren, "beste kolektibo batzuk" (LGTBI, osasun-arazoak edo droga-menpekotasunak dituzten pertsonak, prostituzioa, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, etab.), jarduketa guztien %17,0. Neurri txikiagoan, migratzaileengana (%13,1) eta adinekoengana (%10,3) ere zuzendu dira.


Grafiko 35: Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, beste aldagai batzuen arabera. 2023



Esku-hartze horien bidez, administrazio publikoek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murriztu edo ezabatu nahi dituzte, nahiz eta ikuspegi intersektionalagoa ere jorratu ohi duten, hala nola adina, gizarte-klasea, desgaitasuna, sexu-aukerak, etnia edo arraza, etab. Hala, jardueren %59,8k, gutxi gorabehera, adinaren, sexu-aukeraren eta gizarte-klasearen aldagaiak sartu ditu esku-hartzeetan desberdintasunen sorburu gisa.

Etnia eta/edo arraza edo desgaitasuna bezalako beste gai batzuk ere desberdintasun-sorburu gisa tratatu dituzte Udalek, batez ere.

Grafiko 36: Bestelako desberdinkeriei aurre egiteko ekintzen kopurua. 2023



INFORMAZIO OSAGARRIA

Taula 53 Jarduketa-kopurua, hartzaileen eta erakunde-motaren arabera. 2023

Informatzaileak	Merkataritza-arloa	Pertsonala edota familiakoa	Arlo zibila	Administrazioak	Beste arlo batzuk	Guztira erakundeko
Eusko Jaurilaritza	25	24	35	59	67	210
Emakunde	11	6	26	16	5	64
Foru Aldundiak	4	2	16	14	3	39
Udalak	12	66	42	15	23	158
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	1	9	9	14	2	35
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	3	3	1	7	11	25
GUZTIRA	56	110	129	125	111	531

Taula 54: Gizonentzat, emakumeentzat eta beste identitate batzuentzat berariaz antolatutako jarduketa-kopurua, erakunde motaren arabera. 2023

Informatzaileak	Emakumeak	Gizonak	Beste identitateak	Guztira erakundeko
Eusko Jaurilaritza	48	2	3	53
Emakunde	18	6	1	25
Foru Aldundiak	20	4	-	24
Udalak	116	53	51	220
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	19	6	4	29
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	6	-	-	6
Beste erakunde batzuk	1	-	-	1
GUZTIRA	228	71	59	358

Taula 55: Kolektibo zehatzetan oinarritutako jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2023

Informatzaileak	Gutxiengo etnikoak	Etorkinak	Desgaitasun pertsonak	Gazteak	Adinekoak	Errenta txikiak	Pert. Homosexualak	Beste batzuk	Guztira erakundeko
Eusko Jaurilaritza	4	11	3	12	2	4	2	47	85
Emakunde	4	5	5	8	6	2	3	5	38
Foru Aldundiak	4	5	3	11	4	-	3	1	31
Udalak	26	30	28	55	29	26	31	15	240
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	3	4	3	8	3	3	3	2	29
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	-	1	-	1	-	-	-	2	4
Beste erakunde batzuk	-	-	-	-	-	-	-	1	1
GUZTIRA	41	56	42	95	44	35	42	73	428

Taula 56: Berdintasunaren arloko beste helburu batzuei (ez soilik emakumeei eta gizonei) lotutako jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2023

Informatzaileak	Adina	Gizarte-klasea	Sexu- aukera	Desgaitasuna	Etnia/ arraza	Nazio jatorria	Guztira erakundeko
Eusko Jaurilaritza	5	6	7	3	10	3	34
Emakunde	8	6	7	6	6	5	38
Foru Aldundiak	5	-	1	1	3	2	12
Udalak	31	35	35	21	23	18	163
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	11	5	6	3	4	4	33
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	2	1	1	1	2	2	9
Beste erakunde batzuk	-	1	-	-	-	-	-
GUZTIRA	62	54	57	35	48	34	289

3.7. Ekintzetan egokitze-neurriak erabiltzea


Jarduera gutxitan
erabiltzen dira
egokitzapen-neurriak
behar dituzten
kolektiboentzat

Hala behar duten pertsonen parte-hartzea errazteko neurriak hartzea, hala nola gorrentzako itzulpen-sistema, irisgarritasun fisiko eta komunikatiboa, beste hizkuntza batzuetarako itzulpena eta abar, oraindik ere mugatua da erakunde parte-hartzaileen artean.

Neurri horietakoren bat hartu duten 104 esku-hartzeren berri eman da (%14,8), aurreko ekitaldian baino zertxobait gehiago. Aurreko urtean, 81 esku-hartzeren berri eman zen eremu horretan.

Udalek neurri horiek txertatu dituzte nagusiki; neurri txikiagoan egin dute Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, Emakundek eta mankomunitateek eta koadrilek.

Grafiko 37: Egokitzapen-neurriak dituzten ekintza kopurua. 2023



INFORMAZIO OSAGARRIA

Taula 57: Hainbat kolektiboren ezaugarrietara egokitzeko neurriak ezarri dituen jarduketa-kopurua, erakunde motaren arabera. 2023

Informatzaileak	Desgaitasuna duten pertsonei egokitzea	Etorkinei egokitzea	Beste talde batzuei egokitzea	Guztira erakundeko
Eusko Jurlaritzak	5	6	3	14
Emakunde	8	2	2	12
Foru Aldundiak	6	4	3	13
Udalak	41	10	2	53
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	9	1	-	10
Erakunde autonomoak eta entitate publikoak	1	1	-	2
GUZTIRA	70	24	10	104

3.8. Esku-hartzeen kostua


Berdintasuna
zizatzako aurrekontua
%14,2 igo da.
Aurrekontu osoaren
erdia baino gehiago
erantzunkidetasuna
bultzatzeko izan da:
89 milioi

2023an, botere publikoek berdintasunaren arloan egindako jarduketaren kostua 143.160.602 eurokoa izan da. Horrek esan nahi du %14,2ko igoera izan dela aurreko urtearekin alderatuta (125.264.600 euro 2022an). Aipatzekoa da azken urteotan aurrekontu horien zenbatekoak goranzko joera erakutsi duela. Guztizko kostu horren zati handi bat Eusko Jaurlaritzako sailei dagokie, guztizkoaren %92,3. Jarduera horien helburuak eta kostuak askotarikoak dira, egindako azterketan ikus daitekeen bezala:

- Botere publikoek 89 milioi bideratu dituzte **zainketen erantzunkidetasuna** bultzatzeko, hau da, guztizkoaren %62,2. Kostu ia osoa Eusko Jaurlaritzako sailei dagokie, bereziki Hezkuntza Sailari. Erakunde autonomoen kasuan, 243.965 € bideratu dira, eta aldundien kasuan 145.000 €.
- **Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko jarduerak** 32,8 milioi izan dituzte. Eusko Jaurlaritzako sailek helburu horretara bideratutako aurrekontua nabarmen igo da ekitaldi honetan: 2022ko 5,7 milioitik ekitaldi honetako 30,7 milioira. Era berean, udalek (748.387 €), foru-aldundiek (705.450 €) eta Emakundek (621.126 €) zenbateko esanguratsua bideratu dute horretarako. Hainbat jarduera identifikatu dira eremu horretan: laguntza juridikoa eta psikologikoa, laguntza ekonomikoak, sentsibilizazio-jarduerak, prestakuntza, etab.
- **Gizartean balio-aldaketa** bultzatzeko jardueren guztizko kostua 6,2 milioikoa izan da. Erakunde mota guztiek erabili dute aurrekontuetako kopururen bat helburu hori lortzeko. Ohikoa den bezala, Eusko Jaurlaritzako sailek 3,3 milioi bideratu dituzte, eta, ondoren, Emakundek (1,3 milioi inguru) eta foru-aldundiek (milioi bat pasatxo).
- **Emakumeen ahalduntzeak eta sustapenak** 4,5 milioi euro izan ditu. Foru-aldundiak (2,2 milioi), Eusko Jaurlaritza (1,3 milioi), udalak (milioi erdi baino apur bat gehiago) eta beste erakunde batzuk (300 mila euro baino gehiago) izan dira helburu horretara hurbiltzeko ahalegin ekonomiko handiena egin duten erakundeak.
- Azkenik, **gobernantza hobetzeko** jarduerak 1,3 milioiko kostua izan dute, eta Eusko Jaurlaritzako sailek (521.283 €), Emakundek (500.000 €), foru-aldundiek (309,078 €) eta, neurri txikiagoan, udalek eta erakunde autonomoek bultzatu dituzte.

2023an jakinarazitako jarduera guztietatik (701), %61,3k kostua izan dute, aurreko urtean jakinarazitakoa baino zertxobait handiagoa (%58,4). Adierazi behar da kosturik gabeko jarduketaren arrazoia dela langileek beraiek bultzatzen dituztela..


Grafiko 38: EAEn garatutako jardueren kopurua, erakundeen arabera, guztira eta identifikatutako kostuekin. 2023



Jarraian, kostua duten esku-hartzeen ezaugarriak laburbiltzen dira:

- Eusko Jaurlaritzak sustatutako 126 jarduketaren kostua (guztizkoaren %56,8) 132,6 milioikoa izan da.
- Foru aldundiek jakinarazitako jarduera guztien %89,6k 5,2 milioi euroko kostua izan du.
- Emakunderen jardueren %76,1 2,6 milioira iritsi da.
- Udaletan, jardueren %57,2k 1,7 milioiko kostua izan du.
- Erakunde autonomoei dagokienez, jarduketaren %44,4k 786.504 €-ko zenbatekoa izan dute.
- Beste erakunde batzuen %88,9k guztira 389.050 €-ko kostua izan du.
- Mankomunitateen eta koadrilen jarduera guztien %46,8k kostua izan du (175.347 €).

Grafiko 39: Jakinarazitako jarduketaren kostu osoa, erakundearen arabera (milakoetan). 2023



INFORMAZIO OSAGARRIA

Taula 58: Kostuarekin informatutako jarduerak, erakunde-motaren arabera. 2023

Informatzaileak	Guztira
Eusko Jaurlaritza	126
Emakunde	35
Foru Aldundiak	69
Udalak	150
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	22
Erakunde Autonomoak/ Erakunde Publikoak	12
Kapital publikoko enpresak	0
Beste erakunde batzuk	16
GUZTIRA	430

Taula 59: Informatutako jardueren kostua, erakunde-motaren arabera. 2023

Informatzaileak	Guztira	Ehunekoak
Eusko Jaurlaritza	132.217.197	92,4
Emakunde	2.608.000	1,8
Foru Aldundiak	5.219.615	3,6
Udalak	1.764.889	1,2
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	175.347	0,1
Erakunde Autonomoak/ Erakunde Publikoak	786.504	0,5
Beste erakunde batzuk	389.050	0,3
GUZTIRA	143.160.602	100,0

Taula 60: Jarduketan kostua, esku-hartzearen helburuaren eta erakunde motaren arabera. 2023

Informatzaileak	HELBURUAK					
	Indarkeria desagerraraztea	Erantzunkidetasuna	Ahalduntzea/sustatzea	Aldeko kultura sustatzea	Gobernantza hobetzea	Ez da bat ere egokitzen
Eusko Jaurlaritza	30.701.007	88.596.727	1.347.942	3.364.901	521.283	7.677.337
Emakunde	621.126	27.138	45.340	1.324.652	500.000	84.944
Foru Aldundiak	705.450	145.000	2.224.061	1.047.530	309.078	684.956
Udalak	748.387	24.455	555.180	367.195	13.310	47.362
Mankomunitateak, Koadrilak eta partzuergoak	38.331	20.000	77.187	38.329	-	-
Erakunde Autonomoak/ Erakunde Publikoak	-	243.965	-	61.081	2.259	479.199
Beste erakunde batzuk	21.000	-	322.000	28.750	-	17.300
GUZTIRA	32.835.301	89.057.285	4.571.710	6.232.438	1.345.930	8.991.098

Oharra: taula honen batura ez dator bat aurreko taulako aurrekontuarekin, aurrekontu batzuk ez baitaude helburuen arabera banakatuta.